

Ez adio

Lau urtaroetan, beroena ohi da uda; kale eta plazetan, oporretako sasoi gehien bat. Aldiz, negua hartu ohi dugu hotzaren seinaleztat, bere afrontu eta olatuekin, euri eta elurrekin; lana zintzo eta gogor egiteko izaten da eskolan eta fabrian. Berpizkundetzat jo izan dugu primadera; gereziendoen pipila zurixkak akuilaturik, poesiarekin maitemintzen hasi ohi dira nerabeak oro. Hausnarketarako hartzen dugu zaharragoek udagoiena, pagatxari hitza hartuta.

Ziklo interesgarria osatzen dute urtaroeak. Hasiera bat eta amaiera bat markatzen digute. Bizitzaren joan-etorria irudikatu dugu batzuetan urtaroeekin, lanen bukaera-hasierak. Aldakuntza. Mugikortasuna...

Dantzaria da, oso, urtaroen arteko muga, dantzaria erabat haren bakoitzaren mamia han eta hemen. Ipar-hemisferioko Europan, Amerikan eta Asian, ekainaren 21ean hasten da udaldia, edo 22an; hego-hemisferioko Afrikan, Amerikan eta Australian, aldiz, abenduaren 21ean, edo 22an.

Hartara, hemen uda denean, negua da han. Eguzki-errainu erreki begira jartzen garenean hemen, han izotza dute leiho-ahoetan. Hodeia eta kazkabarra direnean gurean nagusi, sapa eta izerdia bizi beharra dute han, antipodetan. Etengabea da zikloaren higidura, mudantza eta bultzada.

* * *

Naturan legez, hedabideetan ere izaten dira zikloak eta urtarok. **ARGIA** honetara, esate baterako, urteko deskantsua hartzeko egunak ari dira hurbiltzen.

Udaldiko zikloan, urtaro beroarekin, gurea bezalako gizarte aurreratuan, borondatezko migrazio tiki hasteko tenorea heltzen da. Behin behineko laburra. Oporretakoa deitu dioguna.

Barkazio-egun horietaz baliatuta, yurtetako esneak dastatzera joango dira batzuk, Mongolia urruneraino. Glaziarretako pitzadurekin dantzan hartuko dute beste batzuek atsegina,



J. I. Basterritzea

Olasagarre

Apalategi

Andeetan nahiz Kaukasoon. Edo, krokodiloei bazka ematen, Madagaskar hezeko zoologikoe-tan. Horiek, atzerrian.

Hurbilago, Aralarko belardietan geratuko dira beste batzuk, San Lorentzotako izar iheslariei so. Ondarraitzen, kresalezko ohantzetan etzango dira beste batzuk, itsasoko oihal zuriei beha.

Erbestean nahiz etxean, Venus eta Marte zaindari, maitemindu ere egingo da inor belar onduetan. Eta, ustekabean, baita amodioa galdu ere, labar zurbiletan. Heltea baitakar epelak: fruitu izan, edo abagune.

Lana eta beharra izango dute baten batzuek. Uda izanagatik, denek ez baitute barkaziorik. Eta migrazioa, oporretakoa barik, jorjala biltzekoa izango dute. Liburuekin emango du inork uda. Irailerako ikasten...

Zikloaren biribiltasuna, joan-etorriaren aldaketa, etengabetasunaren higidura... Denentzako soka-dantza. Txanda, azken finean.

Egun bitan bero, hirutan langar. Horixe egokitu zaigu denei orain arteko udaldian. Gure auzoan ez dira tomateak gorritu, eta patata usteldu egin zaigu. Ez da aparteko ona izan eguraldia ekainean, ezta uztailean ere. Ea bihar zer dakarren...

* * *

Agorrileko bezperatan, lan batzuk amaituta, udaldi epelari keinu egin guran, kapsula hegalariko leihoak itxi ditu martiztar herrenak. Aldi baterako, badoa-eta bera ere. Metalezko kriskitin-hotsa egin du haren pote sideralaren bozinak, diosala egiteko.

Bidea eskatzen ari da martiztarrak ezkerreko argi keinukariarekin, hegaldatzen hasi aurretik. Ttakun-ttakun, laztan apal batekin utzi nahi du Lurra. Hautsak harrotu barik.

Kapsula hegalarira sartu aitzin, makilak hurbildu dizkio Katixa Agirre (h)errenkide berriari, eta belarrira esan dio: "ARGIA den bitartean, balia itzazue haren dirdaia eta distirak".

Ez adio. ■



Kapsula hegalarira sartu aitzin,
makilak hurbildu
dizkio Katixa Agirre (h)errenkide
berriari, eta belarrira esan dio:
'ARGIA den bitartean,
balia itzazue haren dirdaia eta distirak'

